

MENDIAN GORA HARITZA....

Hona hemen mendizaleen foro bateko bi artikulua. Irakurri arretaz eta aukeratu aditz egokia.

Aratz

Garaiera: 1.443m

Abiapuntuak: Araia, Otzaurte

Gertu: Allatz mendia, San Adrian leizea, San Adrian ermita, San Adrian tumulua

Lurraldeak: Araba



Aratz oso mendi polita da, baina Aizkorri ondoan dago, eta horrekin konparatzen badugu, bigarren mailakoa dela pentsa _____. Aiara aldeko igoera polita da, basoan zehar egiten _____. Lehenengo Azkosaroiko leporaino igo behar dugu, eta, heltzen garenean, bi aukera dauzkagu. Lehenengoa bertatik joatea da, baina oso aldapa gogorra da. Bestela, San Adrian aldetik igo _____, pagadiaren barrenetik eta marra zuri-gorriei jarraituz, ipar-mendebaldeko bizkarrera heldu arte. Basoa atzean utzi eta gero, igoera nabarmena da. Ibilbidea osatzeko, ekialdeko isurialdetik jaitsi eta Allarte eta Uandia nahiko hurbil gelditzen dira. Araitatik abiatu eta laster, San Migel haitza aurkituko dugu, eta hortik Morutegiko Gaztelu aldera paisaia ederrak ikus _____.

Orhi

Garaiera: 2.017m

Abiapuntuak: Ütürzeheta, Laza, Organbidexka

Gertu: Erroimendi harrespila

Lurraldeak: Zuberoa, Nafarroa



Orhi da mendebaldetik hasita 2.000 metro baino gehiago dituen Pirinioko lehenengo tontorra eta alde handiarekin, gainera. Hara bitarteko tontorrik altuena (Bizkarze) baino 400 metro altuagoa da. Mendi handia da, baina errepidea oso gora iristen da, eta jende gehienak erabiltzen duen abiapuntutik hurbilera hel _____. Jende gehiena Larrañe edo Ütürzehetatik abiatzen da, baina beste igoera batzuk egin _____, eta interesgarriagoak dira. Orhiko tontorretik oso ikuspegi zabala daukagu, izan ere, Zuberoako hegoaldea eta Iratiko basoa ikus _____ bertatik.